

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Pantailak Bogotan fabrikatuko ditugu, bertako sektore industrialak hazten ari denez, bertan produzitzea izango da eraginkorrena. Horrela, kostuak murriztu ahal izango ditugu eta entrega denbora laburragoa izango da. Produktuak zuzenean esportatuko ditugu Bogotatik, hirugarren herrialderik gabe, horrek prozesu logistikoa erraztu eta kostuak txikitzen lagunduko du. Hala ere, produktuak helmugara ondo iritsi ahal izateko, seguru total bat ezarriko diogu garraio guztian zehar, kalitatea eta segurtasuna mantendu dadin.

Espainiara hegazkinez garraiatuko ditugu Bogotan fabrikatutako produktuak. Espainian, furgoneta flota bat izango dugu bezeroei produktua haien etxera eraman ahal izateko. Horrela, banaketa azkar eta eraginkorra bermatuko dugu, eta etxean ez badaude, bezeroek aukera izango dute Correos bulegoen bidez jasotzeko edo etxera eraman ordez Correosera eramateko aukera ere badago.

Salmenta-Kanaletan, denda fisikoetan egongo dira, MediaMarkt, FNAC, eta Leroy Merlin bezelako kateetan. Gainera, gure denda online propioa izango dugu, "Born to Style" izenarekin, non mundu osoko bezeroek gure produktua erosi ahal izango dute. Espainian, webgunean egindako eskaerak gure furgoneten bidez entregatuko dira. Azkenik, bezeroek gure produktua Zara eta beste hainbat dendetan ikusi eta probatzeko ahalmena izango dute, erosi aurretik.

Laburbilduz, pantailak Bogotan fabrikatuko ditugu, bertako sektore industrialak hazten ari denez eta horrek kostuak murrizteko eta entrega denbora laburtzeko aukera ematen duelako. Produktuak zuzenean esportatuko ditugu, logistikaren eraginkortasuna handituz eta kostuak txikizatuz. Espainian, furgoneta flota bat erabiliko dugu banaketa azkarra eta eraginkorra bermatzeko, eta online salmenta kanalen bidez, mundu osoko bezeroek gure produktuak erosi ahal izango dituzte. Gure estrategia logistikaren eraginkortasuna eta bezeroaren esperientzia hobetzea du helburu, kalitatea eta segurtasuna mantenduz.